

DEIALDI ALDAKETA / MODIFICACIÓN DE CONVOCATORIA

**ERAKUNDE, SEGURTASUN ETA
GOBERNANTZA PUBLIKOAREN BATZORDEA**

- **Eguna:** 2019/11/27
- **Ordua:** 11:30
- **Tokia:** 1. ARETOA

- **DATA ALDATU DA** (lehen azaroaren 13an deitua)
- **PUNTU BATZUK GEHITU DIRA GAI ZERRENDAN**

GAI ZERRENDA

1. - Akta
2019ko azaroaren 20an egindako bilkuraren akta irakurri eta, hala badagokio, onestea.

2. - Lege-proposamena / Agerraldia eskatzea

Ekarpenak egiteko erretiro aurreratua hartu duten irakasleek 2012ko urtarrilaren 1etik egun arte kalte-ordainak jasotzearen etetea kentzeari buruzko lege proposamenari dagokionez

- **Egilea:** Erakunde, Segurtasun eta Gobernantza Publikoaren Batzordea
- **Norentzat:**
Osasun Saila
- Osakidetzako Giza Baliabideen arduraduna
Ogasun eta Ekonomia Saila
- Ekonomia, Finantza eta aurrekontuen sailburuordea
- Ogasun eta Aurrekontu Saila, aholkulari juridikoa

[\(11\09\02\02\00034\)](#)

**COMISIÓN DE INSTITUCIONES, SEGURIDAD Y
GOBERNANZA PÚBLICA**

- **Día:** 27/11/2019
- **Hora:** 11:30
- **Lugar:** SALA 1

- **CAMBIO DE FECHA** (anteriormente convocada para el 13 de noviembre)
- **SE AÑADEN PUNTOS AL ORDEN DEL DÍA**

ORDEN DEL DÍA

1. - Acta
Lectura y aprobación, en su caso, del acta de la sesión celebrada el día 20 de noviembre de 2019.

2. - Proposición de Ley / Solicitud de comparecencia

A fin de que realicen aportaciones en relación con la proposición de ley sobre el levantamiento de la suspensión del cobro de indemnización por el profesorado jubilado anticipadamente desde el 1 de enero de 2012 a la actualidad

- **Autor:** Comisión de Instituciones, Seguridad y Gobernanza Pública
- **Para:**
Departamento de Salud
- Responsable de Recursos Humanos de Osakidetza
Departamento de Hacienda y Economía
- Viceconsejero de Economía, Finanzas y Presupuestos
- Departamento de Hacienda y Economía, asesor jurídico

[\(11\09\02\02\00034\)](#)





BERRIA 3. - Legez besteko proposamena
Delitu-estatistikei eta aktibitate polizialaren
erregistroei buruz ([2019/2862](#))

- **Egilea:** Euskal Herria Bildu LT (EH Bildu LT)
- **Norentzat:** Eusko Legebiltzarreko Mahaia

([11\11\02\01\00451](#))

4. - Beste batzuk
Eskariak eta galderak.

Eusko Legebiltzarra, 2019ko urriaren 25a

NUEVO 3. - Proposición no de ley
Relativa a las estadísticas delictivas y a los
registros de las actividades policiales ([2019/2862](#))


- **Autor:** GP Euskal Herria Bildu (GP EH Bildu)
- **Para:** Mesa del Parlamento Vasco

([11\11\02\01\00451](#))


4. - Otros
Ruegos y preguntas.

Parlamento Vasco, 25 de octubre de 2019





EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO



Dokumentu mota / Tipo de documento: SOLICITUDES DE COMPARECENCIA

Nori zuzendua / Dirigido a: MESA DE LA COMISION DE INSTITUCIONES, SEGURIDAD Y GOBERNANZA PÚBLICA

Proposatzailea / Proponente: LARRAURI, ESTIBALIZ (EA-NV)
PASTOR, JOSÉ ANTONIO (ES-SV)

Talde parlamentarioa / Grupo parlamentario: EA-NV / ES-SV

Data / Fecha: 2019.05.22

Espediente zb / Nº de expediente: 11/09/02/02/00034

Ekimenaren izenburua/Título de la iniciativa: Solicitudes de comparecencias para la Proposición de Ley sobre el levantamiento de la suspensión del cobro de indemnización por el profesorado jubilado anticipadamente desde el 1 de enero de 2012 a la actualidad.

Los Grupos Parlamentarios abajo firmantes, al amparo del vigente Reglamento de la Cámara, solicitan las siguientes comparecencias en relación a la Proposición de Ley sobre el levantamiento de la suspensión del cobro de indemnización por el profesorado jubilado anticipadamente desde el 1 de enero de 2012 a la actualidad.

POR EL DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO:


- Viceconsejero de Función Pública: D. Andrés Zearreta
- Director de Función Pública: D. Juan María Barasorda
- Directora de Relaciones Laborales: D^a Izaskun Urien

POR EL DEPARTAMENTO EDUCACIÓN:

- Viceconsejera de Administración y Servicios: D^a Olatz Garamendi
- Director de Gestión de Personal: D. Jon Agirre
- Director de Régimen Jurídico y Servicios: D. Jon Iñaki Urbina

POR EL DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD:

- Viceconsejera de Administración y Servicios : D^a Ana Aguirre Zurutuza



POR EL DEPARTAMENTO DE SALUD:


- Responsable de Recursos Humanos de Osakidetza


POR EL DEPARTAMENTO DE TRABAJO Y JUSTICIA:

- Viceconsejera de Justicia: D^a Maria Arrate Gallastegui Oyarzabal
- Directora de Administración de Justicia: D^a Maria Isabel Gabriel Bellido

POR EL DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y ECONOMÍA:

- Viceconsejero de Economía, Finanzas y Presupuestos: D. Alberto Alberdi
- Asesor Jurídico: D. Joseba Alcalde


EA-NV


ES-SV

Delitu-estatistikei eta aktibitate polizialaren erregistroei buruz (Izapidetzeko onartzea)
(11/11.02.01.00451)

Mahaiak, 2018ko urriaren 2ko bileran, erabaki du izapidetzeko onartzea, osoko bilkuran eztabaidatzeko, EH Bildu talde parlamentarioak egindako LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA, eta agindu du Eusko Jaurlaritzari bidal dakiola eta Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitarara dadila.

Talde parlamentarioek, Ganberan indarrean dagoen Erregelamenduko 174.3 artikuluan adierazitakoari jarraituz, egoki irizitako zuzenketak aurkeztu ahal izango dituzte, argitalpen hau egin eta hurrengo zazpi egun baliodunen barruan, Mahaiari idazki arrazoiatua bidaliz.

Eusko Legebiltzarreko lehendakaria
Bakartxo Tejeria Otermin

Zioa

Segurtasun politika publikoak zutoin erreal eta objektibo ganean oinarritzeko beharrezkoa da delituen estatistika sistema egoki bat izatea. Gaur egun erabiltzen den metodologiak zabalik uzten du zalantzarako tartea: delituen estatistika oinarritzeko datuak jasotzen dituzten ertzain batzuek adierazi dutenez, delituen inguruko datuak jasotzeko eta tratatzeko sistemak emaitza zehatz batzuetara zuzenduak daude. Udaltzaingoek egiten dituzten datuen bilketak, astiro, baina gehitzen ari dira memoriara, baina oraindik ez da osoa, eta udaltzaingo batzuen datuak jasotzeko sistemak bateraezinak dira. Gaur egungo sistema ezin da beste datuekin erkatu, batez ere Eurostatekoak, sistema penalen ezberdintasunengatik, delituen kalifikazioengatik, publikatzen den maiztasunagatik... eta, tamalez, urtez urte hobetu ordez, metodologia hori mantentzen da.

Urtero EAEko Fiskaltza Nagusiak eta Euskadiko Auzitegi Nagusiak ezagututako delituen memoriak ekartzen dituzte Legebiltzarrera. Datuak jasotzeko eta tratatzeko ezberdintasunen ondorioz, ez dago modurik informazio zehatzik izateko, delitu bat egoki tratatzeko burutzen denetik argitzen den arte, edo horren ezean, kriminalitatearen zenbaki beltzetara jausten den arte. EAEko fiskal nagusi ohi Calparsoro jaunak konpromisoa hartu zuen Erakunde eta Segurtasun Batzordearen aurrean datu horiek Segurtasun Sailarekin gurutzatzeko eta ondorioak Batzordean batera aurkezteko. Haren ondorengo Adán andereak prestutasun hori berretsi zuen. Ibarra jaunak, EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren presidentea, ere begi onez ikusi zuen helburu horri aurre egitea. Segurtasun Sailak, Fiskaltza Nagusiak eta Botere Judizialak badituzte koordinatzeko esparruak, adibidez Judikaturaren, Fiskaltza eta Segurtasun Sailaren arteko Batzorde Autonomikoan, "segurtasuna, ordena publiko eta justiziaren helburuak koordinatu eta hobetzeko" helburua duena. Gune hori horrelako lan bat burutzeko lagungarria izan daiteke.

Relativa a las estadísticas delictivas y a los registros de las actividades policiales (Admisión a trámite)
(11/11.02.01.00451)

La Mesa, en su reunión del día 2 de octubre de 2018, acuerda admitir a trámite para su debate en pleno la PROPOSICIÓN NO DE LEY formulada por el grupo parlamentario EH Bildu, y ordena su remisión al Gobierno Vasco y su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

Los grupos parlamentarios, conforme a lo dispuesto en el artículo 174.3 del vigente Reglamento de la Cámara, podrán presentar dentro de los siete días hábiles siguientes al de esta publicación las enmiendas que consideren pertinentes, mediante escrito motivado y dirigido a la Mesa.

La presidenta del Parlamento Vasco
Bakartxo Tejeria Otermin

Justificación

Es necesario tener un sistema estadístico de delitos adecuado para que las políticas públicas de seguridad se sustenten sobre una base real y objetiva. La metodología que hoy en día se utiliza deja abierto un margen para la duda: según han expresado algunos ertzainas que recogen datos para la estadística de los delitos, los sistemas de recogida y tratamiento de datos sobre los delitos están dirigidos a unos resultados concretos. Los datos recogidos por las policías municipales se están añadiendo, aunque despacio, a la memoria, pero aún no es completa y los sistemas de recogida de datos de algunas policías municipales son incompatibles. El sistema de hoy en día no se puede comparar con los otros datos, sobre todo con los del Eustat, por las diferencias de los sistemas penales, las calificaciones de los delitos, la frecuencia con que se publica y, lamentablemente, en lugar de mejorar cada año, esa metodología se mantiene.

Cada año la Fiscalía Superior y el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco traen al Parlamento Vasco las memorias de los delitos conocidos. Como consecuencia de las diferencias en la recogida y tratamiento de los datos, no hay manera de disponer de una información concreta, de trazar un delito de la manera adecuada desde que se comete hasta que se resuelve, o, en su defecto, hasta que cae en las cifras negras de la criminalidad. El exfiscal general de la Comunidad Autónoma vasca, señor Calparsoro, adquirió ante la Comisión de Instituciones y Seguridad el compromiso de cruzar dichos datos con el Departamento de Seguridad y presentar conjuntamente los datos en la Comisión. Su sucesora, la señora Adán, se mostró también dispuesta a ello. También el señor Ibarra, presidente del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, vio con buenos ojos acometer ese objetivo. El Departamento de Seguridad, la Fiscalía Superior y el Poder Judicial disponen de ámbitos para la coordinación, por ejemplo en la Comisión Autonómica de Judicatura, Fiscalía y Departamento de Seguridad, que tiene como objetivo "la coordinación y mejora de los



Datu zorrotzik ez izateak, bitarteko polizialen eztabaida korapilatzen du. Giza baliabideak, bitarteko teknikoak, azpiegiturak edo aurrekontuaren inguruko eztabaida bera, termino subjektiboetan baino, datu objektiboen ganean oinarrituta egon behar dute.

Posible da delituen estatistika egokitzeko lan hau egitea. Adibide bat izan genuen Erakunde, Segurtasun eta Gobernantza Publikoaren Batzordean: Giza Eskubideen eta Botere Publikoen Katedrak gorrotoen delituen inguruko lanketa bat aurkeztu zuen. Lanak, metodologia akademiko zientifiko zehatz eta egoki batekin, delituaren diagnostiko zorrotz eta sakona egiten zuen: kategoriak, terminologia, erregulazioa, gertakariaren kopurua, lurraldeen araberako banaketa, gertakariaren ondoriozko egozpenak, atxilotetak, biktimizazioa, sailkapena... diagnostiko horretatik, azkenik, ondorioak eta gomendioak ateratzeko. EAEko gorroto gertakariaren mapa oso bat aurkeztu zitzaigun. Pentsatzen dugu posible dela metodologia hori beste delitu familia edo tipologia guztietara zabaltzea.

Amaitzeko, 11\10\07\02\0741 erregistro zenbakia duen galdera luzatu nion Segurtasuneko sailburuari, arauzko armen erabileraren inguruan: "Ba al du sailak erregistro edo estatistika bat arauzko arma zenbat aldiz erabili den zerbitzuan? Ba al du ikerketarik erabilerara horren egokitasunaz, beharraz edota proportzionaltasunaz?" 2018ko maiatzaren 31n emandako erantzuna borobila bezain etsigarria izan zen. "Ez".

Hori dela eta proposatzen dugu ondoko

LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA

- Delituen tasa eta horren ondorioz bitarteko polizialen eztabaida (giza baliabideak, bitarteko teknikoak, azpiegiturak, edo aurrekontuaren inguruko eztabaida bera) datu objektiboen ganean oinarrituta burutu ahal izateko, Eusko Legebiltzarrak Segurtasun Sailari eskatzen dio, Giza Eskubideen eta Botere Publikoen Katedrak duen esperientzia eta metodologiaren laguntzaz, egin dezala delituen estatistikaren berrikuspena, sistema berria akademikoki zorrotza, objektiboa, osoa eta eraginkorra izan dadin.
- Halaber, Legebiltzarrak Segurtasun Sailari eskatzen dio metodologia horren barruan ere azter dezala bide egokia euskal poliziek jasotako datu horiek Fiskaltzak eta Botere Judizialak dituzten datuekin eratzeko, delituen trazabilitate osoa egin ahal izateko.
- Legebiltzarrak Segurtasun Sailari eskatzen dio, metodologia horrekin ere, egin dezala delituen

objetivos de seguridad, orden público y justicia". Ese ámbito puede resultar de ayuda para llevar a cabo un trabajo así.

No disponer de datos estrictos enreda el debate sobre los medios policiales. Los recursos humanos, medios técnicos, infraestructuras o el propio debate sobre el presupuesto tienen que basarse en datos objetivos más que en términos subjetivos.

Es posible llevar a cabo este trabajo de adecuación de la estadística de delitos. Tuvimos un ejemplo en la Comisión de Instituciones, Seguridad y Gobernanza Pública: La Cátedra de Derechos Humanos y Poderes Públicos presentó un estudio sobre los delitos de odio. El trabajo, con una metodología académica científica concreta y adecuada, hacía un diagnóstico estricto y profundo: categorías, terminología, regulación, número de sucesos, división por territorios, impugnaciones como consecuencia de los sucesos, detenciones, victimización, clasificación... para de ese diagnóstico obtener, finalmente, consecuencias y recomendaciones. Se nos presentó un mapa completo de los sucesos de odio en la CAV. Pensamos que es posible extender esa metodología a otras familias de delitos o a todas las tipologías.

Para finalizar, formulé la pregunta con número de registro 11\10\07\02\0741 a la consejera de Seguridad, en relación con la utilización de armas reglamentarias: "¿Tiene el departamento algún registro o estadística sobre cuántas veces se ha utilizado el arma reglamentaria en servicio? ¿Tiene algún estudio sobre su conveniencia, necesidad o proporcionalidad?" La respuesta dada el 31 de mayo de 2018 fue tan contundente como decepcionante. "No".

Por ello, proponemos la siguiente

PROPOSICIÓN NO DE LEY

- A fin de poder realizar, basándose en datos objetivos, una tasa de delitos y como consecuencia un debate sobre los medios policiales (recursos humanos, medios técnicos, infraestructuras, o el propio debate sobre el presupuesto), el Parlamento Vasco insta al Departamento de Seguridad a que, con ayuda de la experiencia y metodología de la Cátedra de Derechos Humanos y Poderes Públicos, realice una revisión de la estadística de delitos, para que el sistema renovado sea académicamente estricto, objetivo, completo y eficaz.
- Asimismo, el Parlamento insta al Departamento de Seguridad a que, también dentro de esa metodología, estudie la manera más adecuada para comparar los datos recogidos por las policías vascas con los datos de que dispone la Fiscalía y el Poder Judicial, para poder realizar la trazabilidad completa de los delitos.
- El Parlamento insta al Departamento de Seguridad a que, también con esa metodología,

errepresiorako erabiltzen diren tresna eta teknika polizialen erregistro bat, erregelamenduzko armen erabilera barne, eta horren emaitza, dagozkion ondorio eta gomendioekin, Legebiltzarraren esku jar dezala.

Gasteizen, 2018ko irailaren 24an

Julen Arzuaga Gumuzio, EH Bildu taldeko legebiltzarkidea eta bozeramaileordea

elabore un registro de las herramientas y técnicas policiales utilizadas para la represión de los delitos, incluyendo la utilización de las armas reglamentarias, y ponga su resultado a disposición del Parlamento, junto con sus correspondientes consecuencias y recomendaciones.

Vitoria, 24 de septiembre de 2018

Julen Arzuaga Gumuzio, parlamentario y portavoz suplente del grupo EH Bildu

Relativa a las estadísticas delictivas y a los registros de las actividades policiales (Enmiendas)
(11/11.02.01.00451)

La Mesa, en su reunión del día 23 de octubre de 2018, acuerda admitir a trámite las siguientes enmiendas presentadas a la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario EH Bildu, y ordena su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

La presidenta del Parlamento Vasco
Bakartxo Tejeria Otermin

GRUPO PARLAMENTARIO ELKARREKIN PODEMOS

ENMIENDA DE TOTALIDAD

- "1. El Parlamento Vasco insta al Departamento de Seguridad a que, en el plazo de seis meses, presente un modelo de estadística sobre la delincuencia en Euskadi que englobe todos los datos policiales, aportando un estudio lo más objetivo posible de esta realidad, para facilitar el análisis crítico de las políticas públicas en este ámbito. Con este objetivo se recomienda la colaboración con las instancias oportunas de la Universidad del País Vasco UPV-EHU, atendiendo a los criterios internacionales, especialmente a los expuestos por el Centro Internacional de Prevención de la Criminalidad.
2. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco, especialmente a los departamentos con competencias en Justicia y en Seguridad, a que, en el plazo de un año, presente un programa de análisis de la seguridad pública en Euskadi, que permita contrastar los datos recogidos por las policías vascas con los elaborados en la Administración de Justicia, tanto en la Fiscalía como en los juzgados y tribunales. El objetivo es conocer la eficiencia de las políticas públicas frente a la delincuencia, incluso analizando la trazabilidad de casos como los referentes a violencias machistas o a los delitos de odio, entre otros casos estratégicos que se consideren.
3. El Parlamento Vasco insta al Departamento de Seguridad a que, siguiendo esta metodología de análisis crítico y relacional entre instituciones, elabore, en un plazo de seis meses, un registro de los métodos y procesos policiales utilizados para la represión de los delitos. En especial, presentará un estudio del uso de armas de fuego por parte de la policía vasca, relacionado con los parámetros recogidos en el Código Europeo de Ética Policial, de 2001, en el que aporte su valoración y recomendaciones.
4. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a tener en cuenta en todos los procesos de los

Delitu-estatistikei eta aktibitate polizialaren erregistroei buruz (Zuzenketak)
(11/11.02.01.00451)

Mahaiak, 2018ko urriaren 23ko bileran, erabaki du izapidetzeko onartzea EH Bildu talde parlamentarioaren legez besteko proposamenari aurkeztutako ondoko zuzenketak, eta agindu du Eusko Legebiltzarren Aldizkari Ofizialean argitara daitezela.

Eusko Legebiltzarreko lehendakaria
Bakartxo Tejeria Otermin

ELKARREKIN PODEMOS TALDE PARLAMENTARIOA

OSOKO ZUZENKETA

- "1. Eusko Legebiltzarrak Segurtasun Sailari eskatzen dio aurkez dezala, sei hilabeteko epean, Euskadiko delitugintzari buruzko estatistika-eredu bat, datu polizial guztiak jasoko dituen, eta azter dezala errealitate hori ahalik eta modu objektiboenean, arlo horretako politika publikoak kritikoki aztertzeko. Helburu horrekin, gomendatzen da EHU Euskal Herriko Unibertsitateko dagozkion instantziekin lankidetzan aritzea, nazioarteko irizpideei jarraiki, bereziki Kriminalitatea Prebenitzeko Nazioarteko Zentroak azaldu ditueni.
2. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio, bereziki Justizian eta Segurtasunean esku-menak dituzten sailei, aurkez dezala, urtebeteko epean, Euskadiko segurtasun publikoa aztertze-ko programa bat, aukera emango duena euskal poliziek bildu dituzten datuak Justizia Administrazioako (Fiskaltza zein epaitegiak eta auzitegiak) datuekin alderatzeko. Helburua da jakitea zenbateraino diren eraginkorrak delitugintzari aurre egiteko politika publikoak, baita, besteak beste, indarkeria matxisten edo gorroto-delituen inguruko kasuen trazabilitatea aztertuz ere, aintzat hartzen diren beste kasu estrategiko batzuen artean.
3. Eusko Legebiltzarrak Segurtasun Sailari eskatzen dio egin dezala, sei hilabeteko epean, erakundeen arteko analisi kritiko eta erlazionalaren metodologia horri jarraiki, delituak erreprimitzeko erabiltzen diren metodo eta prozesu polizialen erregistro bat. Bereziki, aurkez dezala euskal poliziak su-armei ematen dien erabilerari buruzko azterlan bat, 2001eko Etika Polizialaren Europako Kodean jasotako parametroei lotua, non bere hausnarketa eta gomendioak emango baititu.
4. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio har ditzala kontuan, 1., 2. eta 3. puntueta-



puntos 1, 2 y 3 las aportaciones de la criminología feminista e incorporar la perspectiva de género en todos los puntos que se proponen en esta proposición no de ley.

5. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a cumplir con el acuerdo alcanzado por el Parlamento, el 20 de diciembre de 2017, a partir de la proposición no de ley relativa a violencias machistas, y el Departamento de Seguridad, en relación con el registro y procesamiento de datos, actualización del sistema de indicadores, estadísticas y publicación de memoria monográfica anual.
6. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a facilitar todos los medios necesarios para asegurar la transparencia y acceso a datos, en particular a los ámbitos de estudio e investigación, como es el caso de la Universidad".

GRUPO PARLAMENTARIO POPULAR VASCO

ENMIENDA DE TOTALDAD

"El Parlamento Vasco insta a la consejera de Seguridad a que, en el plazo de tres meses desde la aprobación de esta iniciativa, presente un informe técnico que determine las posibilidades de transformar los sistemas de recogida de datos sobre la comisión de ilícitos penales, por parte de todas las policías que trabajan en nuestro territorio, adaptándolos a la metodología seguida por la Fiscalía y los juzgados y tribunales de la Comunidad, con el fin de conseguir una imagen fiel de la actividad delictiva sufrida en el País Vasco que permita mejorar la lucha contra la misma".

EUZKO ABERTZALEAK ETA EUSKAL SOZIALISTAK TALDE PARLAMENTARIOAK

OSOKO ZUZENKETA

"Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio:

- Europako estatistiketako Praktika Onen Kodearen gomendioak aintzat hartuz, kriminalitateko estatistika-sisteman txertatu ditzala 15.000 biztanletik gorako udalerrietan udaltzainek erregistratutako infrakzio penalak, Ertzaintzak ezagutzen dituen delitu-gertakariez gain.
- Segurtasun Sailaren webgunean jartzea, Euskal Poliziaren kriminalitate-estatistikako atariaren bidez, delitu-gertakariak, atxiloketak eta erruztapenak, biktimizazioak, gorroto delituekin lotutako gertakariak, hala nola herritarren segurtasuna babesteko 4/2015 Lege Organikoaren arau-hausteak".

ko prozesu guztietan, kriminologia feministaren ekarpenak, eta txerta dezala genero-ikuspegia legez besteko proposamen honetan proposatzen diren puntu guztietan.

5. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio bete dezala Legebiltzarrak, 2017ko abenduaren 20an, indarkeria matxistei buruzko legez besteko proposamenean oinarrituta, eta Segurtasun Sailak honi buruz lortu zuten akordioa: datuak erregistratu eta prozesatzea, adierazleen sistema eguneratzea, estatistikak, eta urteko memoria monografikoa argitaratzea.
6. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio eman diezazkiela, batez ere azterketa- eta ikerketa-arloei, hala nola Unibertsitateari, behar diren bitarteko guztiak gardentasuna eta datuetarako sarbidea bermatzeko".

EUSKAL TALDE PARLAMENTARIO POPULARRA

OSOKO ZUZENKETA

"Eusko Legebiltzarrak Segurtasuneko sailburuari eskatzen dio ezen, ekimen hau onetsi eta hiru hilabete baino lehenago, txosten teknikoa aurkeztu dezala, zeinak aukerak zehaztuko baititu ez-zilegi penalak buruzteari buruzko datuak jasotzeko sistemak eraldatzeko –gure lurraldean diharduten polizia guztiek egiten dituzte–, sistema horiek Fiskaltzak eta Erkidegoko epaitegi eta epaimahaiek jarraitutako metodologiara egokitu daitezen, Euskal Autonomia Erkidegoak jasaten duen jardura deliktiboaren egiazko irudia lortzeko helburuarekin, horren kontrako borroka hobetzea ahalbidetze aldera".

GRUPOS PARLAMENTARIOS NACIONALISTAS VASCOS Y SOCIALISTAS VASCOS

ENMIENDA DE TOTALIDAD

"El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a:

- Atendiendo las recomendaciones del Código de Buenas Prácticas de estadísticas europeas, integrar en el sistema estadístico de criminalidad las infracciones penales registradas por las policías locales de los municipios de más de 15.000 habitantes, además de los hechos delictivos conocidos por la Ertzaintza.
- Ubicar en la web del Departamento de Seguridad, mediante el portal estadístico de criminalidad de la Policía Vasca, los hechos delictivos, detenciones e inculpaciones, victimizaciones, incidentes relacionados con delitos de odio, así como las infracciones a la Ley Orgánica 4/2015 de protección de la seguridad ciudadana".



Delitu-estatistikei eta aktibitate polizialaren erregistroei buruz (Izapidea aldatzea)
(11/11.02.01.00451)

Mahaiak, 2019ko maiatzaren 28ko bileran, erabaki du onartzea EH Bildu talde parlamentarioaren idazkia, legez besteko proposamena batzordean eztabaida dadila eskatzeko egina, eta agindu du Erakunde, Segurtasun eta Gobernantza Publikoaren Batzordeari bidal dakiola proposamena eta Eusko Legebiltzarren Aldizkari Ofizialean argitara dadila erabakia.

Eusko Legebiltzarreko lehendakaria
Bakartxo Tejeria Otermin

Relativa a las estadísticas delictivas y a los registros de las actividades policiales (Modificación de trámite)
(11/11.02.01.00451)

La Mesa, en su reunión del día 28 de mayo de 2019, acuerda admitir el escrito del grupo parlamentario EH Bildu en el que solicita que la proposición no de ley sea debatida en comisión, y ordena su remisión a la Comisión de Instituciones, Seguridad y Gobernanza Pública y su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

La presidenta del Parlamento Vasco
Bakartxo Tejeria Otermin
